  - b) PASTIZAL: Comunidad natural dominada, en general, por especies bastas que, por efecto del clima, se seca o agosta en verano. Su densidad es variable y frecuentemente está salpicado de especies leñosas. Se aprovecha mediante pastoreo extensivo.

CULTIVOS FORRAJEROS: Pastos sembrados en una rotación.

- PRADERA: Cultivo polífito constituido fundamentalmente por gramíneas y leguminosas, que puede ser aprovechado por siega o pastoreo de forma indistinta. En general son plurianuales. Con el paso del tiempo pueden naturalizarse (las especies sembradas son sustituidas por espontáneas), transformándose en prados o pastizales, en función de la humedad.
- CULTIVOS FORRAJEROS MONOFITOS. Cereales de invierno o de primavera para forraje, leguminosas y gramíneas forrajeras, raíces y tubérculos forrajeros, barbecho semillado, etc.

Ferrer, C., San Miguel, A., & Olea, L. (2001). Nomenclátor básico de pastos en España. *Pastos*, 31(2), 7–44.





Detalle de lapiaz



Casa de pastor o borda en la majada



Rebaño de ovejas latxa



Otros elementos constructivos en la majada o saroiá








1. Osagaiak: **biotiko** naturala basoan eta kontrol antropikoa belardietan, baso-landaketetan eta larreetan, eta **antropikoa** baserrietan eta baso-pistetan.

2. Irudian, malda handiko mendi baten hegala ikusten da (Ordunte), eta, atzealdean, malda etzandagoko haran bat (Karrantza). **Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranen** unitatea. Harriek, hautematen ez diren arren, detritikoak izan behar dute (hareharriak eta limolitak). Malda handia egiturak bultzatzen du, erliebe monoklinal baten aurrealdea baita ([ikus 1.h.d.](#)). Higaduraren dinamika mendihegaleko prozesuekin (labainketak) eta ibai-prozesuekin (ibai-burualdea) lotuta dago.

3. Tontor-eremuan zuhaixka- eta belar-formazioa (txilardi-larre) eta pago-basoa (*Fagus sylvatica*) bereizten dira. Hori da ezaugarri klimatiko atlantikoak dituen eremu horren landare-formazio potentziala (prezipitazio ugari eta konstanteak eta tenperatura leunak, baina altitudeak eragindakoak). Gainerako hegalean pinu intsigne (*Pinus radiata*) baso-landaketak daude.



4. Ez da ur-gorputzik ikusten, baina bai haien higatze lana.


5. Landa-paisaia horretan bi nekazaritza-funtzio bereizten dira: **abeltzaintza** belardietan eta larreetan, eta **zurgintza** baso-landaketetan ([ikus 2.h.d.](#)).

6. Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde kantauriarreko landa-eremuaren zati handi bateko paisaia bereizgarria da: larrezelaiak, baso-ustiapenera bideratutako malda handiko hegalek eta abeltzaintza-bokazioko haranak, belardi eta landaketen mosaiko batean sakabanatutako baserriekin. **Zuraren ekoizpena** herrialdearen historia ekonomikoaren parte da. Lehenengo, zuhaitz autoktonoak (haritzak, gaztainondoak eta pagoak) erabili ziren burdinoletako ikatza edo ontzigintzarako zura egiteko. Gero, hazkunde azkarreko espezie exotikoak baso-baliabide nagusiak izan dira, papergintzari, taulei eta abarri zura emanaz. Hedadura handiena hartzen duen espeziea intsinis pinua da (zuhaitz-azalera osoaren %30 baino gehiago hartzen du), ondoren eukalipto kantauri isurialdean eta pinu gorria mediterraneoan ([ikus 3.h.d.](#)). Askotan, landaketa horiek higadura-fenomenoak agertzeko arrisku handia duten mendi-hegaletan egiten dira ([ikus 4.h.d.](#)), ezaugarri litologikoak eta malda handikoak direla eta. Zura ateratzeko pistak irekitzeak suszeptibilitate hori areagotzen du, irudian ikus daitezkeen bezala.




## Laguntza-materialak

- (1) [http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d0\\_G50/Editado\\_MAGNA50\\_60.jpg](http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d0_G50/Editado_MAGNA50_60.jpg)




- (2) <https://www.euskadi.eus/euskal-aeko-zuhaitzekiko-baso-azalera-lurraldeen-arabera/web01-a3estbin/eu/>

- (3) [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inventario\\_forestal\\_2016/es\\_agripes/adjuntos/El%20bosque%20vasco%20en%20cifras%202017.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inventario_forestal_2016/es_agripes/adjuntos/El%20bosque%20vasco%20en%20cifras%202017.pdf)



- (4) <https://www.euskadi.eus/informazioa/euskal-autonomia-erkidegoko-nekazaritza-eta-basozaintzako-lurralde-plan-sektoriala/web01-a2lurral/eu/>

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pts\\_agroforestal/eu\\_def/adjuntos/B\\_Arauak.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/pts_agroforestal/eu_def/adjuntos/B_Arauak.pdf)



Eremu eta gai honi buruzko erreferentzia bibliografikoak :

Michel, M., Gil, L. (2013): *La transformación histórica del paisaje forestal en la Comunidad Autónoma de Euskadi*, Vitoria-Gasteiz, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Colección LUR, 18, 476 pp.

[https://www.euskadi.eus/plan\\_vasco\\_forestal/web01-a2nekabe/es/](https://www.euskadi.eus/plan_vasco_forestal/web01-a2nekabe/es/)








1. Osagaiak: **biotiko** naturala sastraketan eta kontrol antropikokoa baso-landaketetan, **hidrikoa** ur-laminan eta **abiotikoa** itsasertzean eta labarretan.

2. Irudian kostaldeko erliebe luzanga ikus daiteke (Jaizkibelgo mendilerroa), itsas beso baten sarrerak moztua (Pasaiaiko itsasadarra). **Kostaldeko Katea** unitatea. Irudiak erliebe horren egitura erakusten du. Egitura monoklinala da, itsasorantz okertuta dagoena (**ikus 1.h.d.**), eta bertan labar malkartsuen lerro bat marrazten da. Aurrealdean, arroka-geruzak txandakatuta daude. Itsasoaren eragina higadura-eragile nagusia da, eta, beraz, **itsasertzeko modelatua**, nahiz eta mendi-hegaleko prozesua ere ikusten den, jausi harritsuak, ertzeraino iristen dena.

3. Irudian zuhaixka-landare diaren orbanak ikusten dira (iratza-txillardia-otadia), zuhaitz batzuk eta baso-landaketaren hedadura handia. Baldintza klimatiko atlantikoko (**ikus 2.h.d.**) eta lurzoru azido eta hareatsuko eremu horri dagokio landaretza potentzial gisa ametzeta eta haritza (*Quercus pyrenaica* eta *Quercus robur*) (**ikus 3.h.d.**), baina suteak errepikatuak izan dira hamarkadetan.



4. Lehenik eta behin, Kantauri itsasoaren besoa ikusten da, barnealderantz sartzen dena eta harana urez betetzen duena, eta, beraz, **itsasadarra** da.


5. Paisaia horretan, funtzio **naturala** dago itsasoan, itsaslabarraren aurrealdean eta erabilerarik gabeko malkar eta mendi-mazeletan, **basogintza** landaketa-eremuetan, eta itsasontzien presentziarekin eta itsasargia duen kaiarekin ere sumatzen da **zerbitzu-funtzioa** (Pasaiaiko portua).

6. Euskal itsasertzaren zati handi bat itsasora begira dauden itsaslabar erliebeek osatzen dute. Eremu horiek ez dira oso irigarriak, eta gizakiaren eragina lurraldearen baldintza fisikoek mugatzen dute. Suteek asko zigortzen duten espazioa den arren, natura-balio handia du oraindik, eta, horregatik, **Kontserbazio Bereziko Eremu** gisa ezagutzen da (**ikus 4.h.d.**). Balio geologiko eta geomorfologikoagatik ere nabarmentzen da, eta, horregatik, **Interes Geologikoko Gune** gisa izendatzen dira haren itsaslabarrak eta ibai-ibarrak (**ikus 5.h.d.**). Itsasertzeko arku natural horretan, kanpoko portu bat eraikitzeko proiektuak ere izan dira, portuko barne-jarduera arintzea eta oso hondatuta dagoen ingurune baten hirigintza-berroneratzea ahalbidetzeko. Baina proiektua epe jakinik gabe atzeratu da, eta hirigintza hobetzeko eta antolamenduko jarduketak gaur egun barneko portura mugatzen dira (**ikus 6.h.d.**). Espazioak berrerabiltzea lurralde baten jasangarritasunaren baldintzetako bat da.




## Laguntza-materialak

- (1) [http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d0\\_G50/Editado\\_MAGNA50\\_40.jpg](http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d0_G50/Editado_MAGNA50_40.jpg)



- (2) Atlas climático para el período 1971-2000: batez besteko prezipitazio eta temperatura datuekin <http://agroclimap.aemet.es/#> edo Klima-aldaketaren agertokiak-historikoa: 1971-2000 aldia <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>


- (3) EAEko Landarediaren Mapa (Ingurumena Geruza-Landaredia) <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoeuskadiWAR/index.jsp>



- (4) <https://www.euskadi.eus/natura-2000-sarea/>



- (5) <https://www.euskadi.eus/informazioa/geologia-interesdun-lekuak/web01-a2ingdib/eu/>



- (6) <https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/2579594/superpuerto-pasaia--aparcen-proyecto-puerto-exterior/>



<http://www.pasaiaport.eus/es/puerto/autoridad-portuaria/planificacion-portuaria>







1. Osagaiak: **biotiko** antropikoa belardi, zuhaixka eta baso-landaketetan, **antropikoa** etxebizitzetan eta elizan, bai eta azpiegitura-elementuetan ere.

2. Irudian, **Itsasbaxter Aurreko Katea** zein **Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranak** erliebe unitateetan koka daitekeen mendi baten hegal okertua ikusten da, (**ikus 1.h.d.**), hau da, Mendi eta Haran Atlantikoen eremu geografikoan. Ez da ikusten modelatzearen erliebe forma aktiborik.

3. Irudian belardien eta larrezelaien azalera handia, frutak eta baso-landaketa bat ikus daitezke. Baldintza klimatiko atlantikoko eremu horri hostozabalen baso mistoa dagokio landaredi potentzial gisa, eta **haritza** (*Quercus robur*) da nagusi eremu horretan (**ikus 2.h.d.**), baina nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak **landazabal atlantikoa** izeneko paisaia ireki bat eratu du.



4. Ez da ur-gorputzik ikusten.

5. Paisaia hori landa-inguruneari dagokio, baina herrigune bat du, ez bakarrik sakabanatutako baserriak, baita bizitegi-eraikinak ere, hiri-lurzoru gisa kalifikatutako lurzorua behar dutenak (**ikus 3.h.d.**). Beraz, **nekazaritza-**, **abeltzaintza-** eta baso-funtzioaren irudian **bizitegi-funtzioa** gehitzen da, hainbat altueratako eraikuntzekin.

6. Irudiak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoko landa-ingurunearen zati handi batean errepikatzen den paisaia bat jasotzen du: landa-gune tradizional txikiak, hiriguneetatik eta jarduera ekonomikotik hurbil daudenez, urbanizatorako lurzorbaliabide bihurtu direnak. Horrek eta eraikuntzaren ezaugarriek paisaia horien izaera aldatzea ekarri dute (**ikus 4.h.d.**), bai eta lurzoru artifiziala handitzea ere, kasu honetan lurzoru urbanizatuarena. Bizitegi-eskariarekin batera, gero komunikazioko ekipamendu eta azpiegiturak eta abar ere eskatzen dira. Hala, hirian zabaltzen den eta lurraldean hedatzen den urbanizazio-eredua (**ikus 5.h.d.**) gero eta elementu kritikoagoa bihurtzen da jasangarritasunerako (**ikus 6.h.d.**).











1. Osagaiak: **abiotiko** naturala harkaitzetan, **biotiko** naturala basoko orbanetan, eta antropikoa belardietan eta baso-landaketetan, **antropikoa** eraikitzen ari den azpiegituran, baserria eta bidean.

2. Irudian, haran estu baten hegala aldapatsuak ikusten dira, eta, atzealdean, kareharrizko mendi bat. **Erdiko Ibaibideetako Mendi eta Haranak** erliebe-unitatearekin bat egiten du (**ikus 1.h.d.**). Malda handiko mendi-hegala horiek osatzen dituzten arrokak buztintsuak dira, eta, beraz, uraren ukipenarekin oso delezargarriak, eta mendi-hegaletako mugimenduak sor ditzaketenak (**ikus 2.h.d.**).

3. Irudian, belardiak eta baso-landareko orbanak bereiz daitezke, landaketei eta basoei dagozkienak, hosto erorkorrenak lehenik eta behin, iraunkorrenak kareharrizko mendiaren magalean. Baldintza klimatiko atlantikoko eremu horri, hostozabalen baso mistoa dagokio landaredi potentzial gisa, **haritza** (*Quercus robur*) nagusi dena. Baina lurrik lehorrigoak eta harritsuagoak direnean (kareharrizko hegaletan), **artadia** (*Quercus ilex*) garatzen da (**ikus 3.h.d.**).



4. Ez da ur-gorputzik ikusten.

5. Paisaia hori **abeltzaintzako eta basogintzako** landa-inguruneari dagokio, eta komunikazio-azpiegitura batek zeharkatzen du (irudian, oraindik obra-fasean dago) -AHT-, eta, beraz, **zerbitzu**-funtzio batekin (**ikus 4.h.d.**).


6. Euskal Herriko isurialde atlantikoko lurraldearen zati handia ezaugarritzen duen **ingurune fisikoaren baldintzatzaile** nagusietako bat jasotzen du irudiak: haran ugariz eta malda handiko hegala dituzten mendiz osatutako erliebea. Edozein lurralde proiektu, eta horien artean luzera handiko azpiegitura linealak, baldintzatuta dago horregatik. Horiek eraikitzeko, ingeniari-taldea lan handiak egin behar dira bidezubietan, tuneletan..., eta mendi-hegalei eusteko (eta egindako lur-erazketei eusteko). Proiektu horiek diseinatu aurreko azterketek kontuan izan behar dute **mehatxu** bezala haien ezegonkortasunak, batez ere prezipitazio handien edo etengabeen garaian, gure lurraldearen beste ezaugarri klimatiko bat dela (**ikus 5.h.d.**).



# Laguntza-materialak


\* Irudia Aramaioko (Araba) paisaia bati dagokio, atzean Udalaitez mendia duela.

(1)



Ruiz y Galdos (2008):  
*Geografía del País Vasco,*


(2)



**Análisis y caracterización de los factores que intervienen en los movimientos de ladera y aproximación de la susceptibilidad en el País Vasco** / Orbanje Ormaetxea Arenaza, Ana Sáenz de Olazagoitia Blanco. - Lurralde : investigación y espacio. - N. 40 (2017), p. 81-109).


(3)

EAEko Landarediaren Mapa (Ingurumena Geruza-Landaredia)  
<https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>



(4)

[http://www.euskadi.eus/web01-a2garrai/eu/contenidos/informacion/4429/eu\\_4081/euskal\\_y\\_aurkezpena.html](http://www.euskadi.eus/web01-a2garrai/eu/contenidos/informacion/4429/eu_4081/euskal_y_aurkezpena.html)



(5)

Argazkiak edo berriak, egunkarietako prozesuen adibideak, bestelako bitartekoak... aurkitzea, eta prezipitazio-konputuekin lotzen dituztenak.









1. Osagaiak: **hidrikoa** ur-laminan, **abiotikoa** ibai-ohearen metakinetan, **biotikoa** ibaiertzeko landaredian eta hondoko hegaletan, **antropikoa** etxebizitzetan.

3. Ikusten den landaretza urari lotuta dago. Ezkerraldean **ibaiertzeko baso** bat dago, askotariko zuhaitz eta zuhaixkekin (zumarrak, lizarrak, haltzak eta sahatsak). Eskuineko ertzeko metakinen gainean ere hazten da eremu horietan berezkoa den belar-landaredia eta zuhaixka-landaredia. Kantauri isurialdeko erdiko ibilgu hauetan klima atlantikoa da, tenperatura leun eta euritsuekin (urteko batez besteko prezipitazioa 1600 mm ingurukoa da eta urteko batez besteko tenperatura 13-14°C-koa) (ikus 2.h.d.).



2. Irudian ibai baten ibilgua ikusten da, bere morfologia, landaretza eta lurzoruerabilerengatik Kantauri isurialdeari dagokion haran batean (ikus 1.h.d.). Ubide batez eta haren ibaiertzez osatutako ibai-modelatua da, nahiz eta eskuina etxebizitzek okupatu duten. Ibilguan, harkaitz-ohearen zati bat eta bloke- eta ertz-metakin batzuk ikusten dira.

4. Ikusitako ur-lamina ibai baten erdiko ibilguari dagokio, ur gutxikoaldi batean, emariak ez baitu ibai-ohea erabat estaltzen (ikus 3.h.d.).

5. Paisaia hori ibai- eta hiri-espazio bati dagokio. Ibaiak eta landaredia duen ibaiertzak funtzio **naturala** mantentzen dute. Eskuineko ertzean, ikusten diren eraikuntzak etxebizitzak dira, eta, beraz, haien funtzioa **bizitegi-erabilera** da.

6. Irudiak gure lurraldeko jarduera antropiko ohikoenetako bat jasotzen du: **ibai-espazioa okupatzea** etxebizitzak eraikitzeke, jarduera ekonomikoa garatzeko edo hainbat azpiegitura instalatzeko. Kasu batzuetan lautada alubiala okupatu da, baina beste batzuetan, hemen ikusten den bezala, **Jabari Publiko Hidraulikoa** ere inbaditzen da (ikus 4.h.d.). Horrek, ibai-sistemaren baldintza naturalak aldatzeaz gain, leku horretan dauden pertsonen eta ondasunen kalteak edo galerak jasateko **arriskuan** jartzen ditu, ibaiaren emaria handitzen denean eta ur-goraldia eta uholdea gertatzen direnean. Eurite iraunkor eta biziak ere eremu horretako ezaugarri klimatikoa dira, eta, beraz, uholdeak behin eta berriz errepikatzen dira. **Mehatxu** horren aurrean **kalteberak** gara, urez bete daitezkeen zonen gainean eraikitzen dugunean. Horregatik, funtsezkoa da jakitea zeintzuk diren eremu horiek, **zenbatero** gerta daitezkeen uholdea (ikus 5.h.d.), eta ez okupatzea eta haiekiko esposizioan ez jartzea (ikus 6.h.d.).



# Laguntza-materialak

\* Irudia Bergara udalerriko (Gipuzkoa) Deba ibaiaren ibarreko paisaia bat da.

(1) Geruzen zerrenda: EAEko ibaiko ur-masak <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoEuskadiWAR/index.jsp>




(2) [http://www.euskalmet.euskadi.eus/s07-5853x/eu/contenidos/informacion/cla\\_clasificacion/eu\\_7264/eu\\_clasificacion.html](http://www.euskalmet.euskadi.eus/s07-5853x/eu/contenidos/informacion/cla_clasificacion/eu_7264/eu_clasificacion.html)


Klimaren Araberako lurraldeen Sailkapena





(3) Ibai-erregimena [https://www.ign.es/espmap/mapas\\_agua\\_bach/Hidro\\_Mapa\\_03.htm](https://www.ign.es/espmap/mapas_agua_bach/Hidro_Mapa_03.htm)



(4) <https://www.miteco.gob.es/es/agua/temas/delimitacion-y-restauracion-del-dominio-publico-hidraulico/delimitacion-dph-proyecto-linde/>



(5) Geruzen zerrenda: EAEko uholde-arriskua <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoEuskadiWAR/index.jsp>  
<https://sig.mapama.gob.es/snczi/>



(6) Uholde-gertaerei buruzko argazkiak edo albisteak aurkitzea.









1. Osagaiak: **antropiko abiotikoa** portu-azalera eraikian eta induskatutako hegalean, **biotikoa** hegalaulkietako landaredian eta **hidrikoa** itsas laminan.

2. Irudia itsasertzeko paisaia bati dagokio. Argazkiaren oinean dagoen mendiaren hegaleak eta atzealdean ikusten den itsaslabarrak osatzen duten kostaldeko erliebea da. Bien artean, irekidura bat marrazten da, oso zabala ez den badia bat, *abra* deitzen dena (**ikus 1.h.d.**). Mendi-hegalaren jatorrizko modelatze-moduak desagertu egin dira; izan ere, harrobi gisa erabili da, portua handitzeko eta betetzeko erabili den harkaitza erauzteko.

4. Irudian Kantauri itsasoko lamina ikusten da barrualdera sartzen den ziri batekin. Itsasoak ibai-harana inbaditzen du, eta, horregatik, mareen eragina iristen den heinean, **itsasadarra** esaten zaio (**ikus 3.h.d.**).

3. Behatutako landaredia ez dator bat itsasertz atlantikoko labar eta hegaletako landaredi potentzialarekin (haritzezko basoak). **Landaredi erruderala** da (**ikus 2.h.d.**). (Latinez *rudis* "obra-hondakinak"), ekintza antropikoak eraldatutako eremuetan hazten eta garatzen diren landareak.



5. Paisaia hori **portuko azpiegitura** bati dagokio. Bertan, eraikitako eta eraikitzen ari diren dikeak eta kaiak ikus daitezke, eta gas naturala deskargatu, biltegitatu, tratatu eta banatzen duen azalera. Paisaia horren funtzioak **merkataritza- eta industria-zerbitzuak** dira.

6. Bilboko kanpoko portuaren zatia jasotzen du irudiak bere irekiduran, baina itsasoari berriki irabazitako espazio baten irudian ikus daitekeen bezala da. Izen bereko itsasadarrean izan zuen jatorria Bilboko portuak, baina, industria jarduera, ontzigitza eta merkataritza handitu ahala, ubidea bideratu eta kaiak, dikeak eta kontradikeak eraiki ziren, portuaren ahalmena handituz. Kanpoinguruko beste udalerrri batzuetarantz ireki zen portua, eta horretarako bete eta eraiki zen itsasoaren gainean. Handitzeari esker, merkataritza- eta industria-jarduera dibertsifikatu egin da, eta itsasadarraren ertzetan balio estrategiko handiko lurak berreskuratu dira hirigintzaren ikuspegitik (**ikus 4.h.d.**). Obra horrek aldatu egin ditu itsasertzeko **ingurumen-baldintzak eta izaera (artifizializazioa)** jarduera ekonomiko eta komertzial handiagoa lortuz. Irudian gas-planta bat ikusten da. Euskadik energia-kontsumoaren tasa handia du, batez ere industria-sektoreari lotuta, eta energia-baliabide gutxi dituenez, sektore horri lotutako industriak izaera estrategikoa du (**ikus 5.h.d.**). Ikatza (Pasaia) eta fueloila (Santurtzi,) oso kutsakorrek erabiltzen zituzten zentral termikoak, dagoeneko desagertu dituzte, eta egungoak, **ziklo konbinatukoak** deituak, gasa erabiltzen dute.



# Laguntza-materialak

\* Irudia Zierbenako (Bizkaia) birgasifikazio-plantari dagokio.


- (1) Bilboko *Abra* eta Itsasadarra ikusten diren antzinako irudia (mapa historikoak)

<https://www.ign.es/iberpix2/visor/>



- (2) Landaredi erruderalari buruzko informazioa [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/series\\_vegetacion/es\\_def/adjuntos/Vegetacion\\_CAPV.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/series_vegetacion/es_def/adjuntos/Vegetacion_CAPV.pdf)


- (3) Itsasadarrak



[http://www.jolube.es/Habitat\\_Espana/documentos/1130.pdf](http://www.jolube.es/Habitat_Espana/documentos/1130.pdf)

Definizioak eta motak hasierako orrialdeetan

- (4) Ortofotografia zaharrak erabiltzea itsasadarrean eta irekiduran gertatu diren okupazio-aldaketak behatzeko <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGoeuskadiWAR/index.jsp>



- (5) Euskadiko energiari buruzko informaziorako materiala

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia\\_energetica\\_euskadi/es\\_def/adjuntos/3E2030\\_Estrategia\\_Energetica\\_Euskadi\\_v3.0.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/estrategia_energetica_euskadi/es_def/adjuntos/3E2030_Estrategia_Energetica_Euskadi_v3.0.pdf)

## 3.2 Diagnóstico de la situación energética en Euskadi

### Demanda energética

La demanda total de energía primaria o consumo interior bruto ha disminuido un 13% en Euskadi en el periodo 2010-2014. El consumo final de energía se ha reducido igualmente un 8%. La reducción ha sido generalizada tanto en los sectores consumidores finales, salvo transporte, como en generación.




Figura 2. Reparto del consumo interior bruto en Euskadi por energías 2000-2014 (Fuente:EV3)








1. Osagaiak: **abiotiko antropikoa** eraikinetan eta bide-sarean eta aparkalekuetan; **biotiko antropikoa** urbanizatutako azalerako landaredian eta hondoko soroetan; **hidriko antropikoa** aintzira artifizialetan eta ur-biltegian.

2. Irudia Arabako Lurralde Historikoko **Lautada** izeneko erliebe-unitatean dagoen paisaiari dagokio. Bere izenak, irudian ikus daitezkeen bezala, ezaugarri fisiografiko nagusia adierazten du: bere lautasuna. Zadorra ibaiak drainatutako haran zabal bat da, gainazal lau batean sakabanatutako muino txikiz osatua (ur-biltegia bertan dago) ([ikus 1.h.d.](#)). Material bigunez (margak) osatutako erliebe hau ibai-higaduraren eraginez eratu da ([ikus 2.h.d.](#)).

3. Lehenik eta behin ikusten den landaredia ez da naturala, parkeetan eta lorategietan landatutakoa baizik, ingurunearen kalitatea hobetzeko. Baldintza klimatiko subatlantikoko eremu horrek (urteko batez besteko prezipitazioa 900 mm-tik beherakoa eta udako lehorte txiki bat duena) ([ikus 3.h.d.](#)) landaredi potentziala erkameztia (*Quercus faginea*) du lurzoru lehorrenetan, eta haritza (*Quercus robur*) hezeenetan ([ikus 4.h.d.](#)).



4. Irudian ikusten diren ur gorputzak artifizialak dira, giza ekintzaren bidez eraikiak.

5. Eraikinen eta espazio urbanizatuaren ezaugarriek adierazten dute **jarduera ekonomikorako** espazio bat dela, parke teknologiko bat, eta, beraz, **funtzio produktiboa (industrial)** eta **IKT zerbitzuena (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) duela, I+G+Bren esparruan** (ikerketa, garapena eta berrikuntza) ([ikus 5.h.d.](#)).

6. **Teknologia parkeak** ikerketan, garapenean eta berrikuntzan oinarritutako industria dibertsifikazioaren aldeko apustua izan dira. Kalitate-inguruneetan dauden espazioak dira, eta teknologikoki aurreratuta dauden hainbat sektoretako enpresak hartzen dituzte, hala nola telekomunikazioak, elektronika, aeronautika, energia, medikuntza edo biozientzia. Parke horietan, produktuak lortzeaz gain, teknologia- eta ezagutza-transferentzia bat dago enpresen, teknologia-zentroen eta ikerketa-zentroen artean (Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea). Euskadik nazioartean kalitate- eta lehiakortasun-marka baten alde egiten du, eta, horregatik, I+Gn inbertitu behar du ([ikus 6.h.d.](#)) Parke horiek ezarri eta garatzeko, urbanizazio-kalitate handiko espazioak planifikatu dira, eraikuntza-dentsitate txikikoak, eraikin bereziki eta berdegune zabalekin, aurreko paisaia aldatuta ([ikus 7.h.d.](#)).




# Laguntza-materialak

\* La imagen corresponde al Parque Tecnológico de Álava de la Red de Parques de Euskadi

(1) Kokapena eta ezaugarri fisiografikoak <https://www.ign.es/iberpix2/visor/>




(2) Mapa geologikoa [http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d1\\_G50/Editado\\_MAGNA50\\_112.jpg](http://info.igme.es/cartografiadigital/datos/magna50/jpgs/d1_G50/Editado_MAGNA50_112.jpg)




(3) Datu klimatikoak <http://www.aemet.es/eu/serviciosclimaticos/datosclimatologicos/valoresclimatologicos?l=90910&k=pva>

Indize	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
Preziazioa	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1
Temperatura	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1	11.1
...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...	...


(4) Landaredi potentziala [https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/series\\_vegetacion/es\\_def/adjuntos/Vegetacion\\_CAPV.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/series_vegetacion/es_def/adjuntos/Vegetacion_CAPV.pdf)



(5) Euskadiko Parke Teknologikoei buruzko informazioa <https://parke.eus/es/las-empresas-del-parke/>



(6) I+D+G gastuari buruzko datuak [https://eu.eustat.eus/elementos/Euskal\\_AEko\\_IG\\_gastua\\_40\\_igo\\_zen\\_2018an/not0016646\\_e.html](https://eu.eustat.eus/elementos/Euskal_AEko_IG_gastua_40_igo_zen_2018an/not0016646_e.html)



(7) Ortoargazki zaharrak erabiltzea okupazio-aldaketak behatzeko <https://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGeoEuskadiWAR/index.jsp>



2023-2024

***GURE GIZARTE  
ETA LURRALDEA:  
GURE PAISAIA.***

**BATXILERGOKO PAISAIAREN  
IRUZKIN GEOGRAFIKOA  
I SARIA**

***NUESTRA SOCIEDAD  
Y TERRITORIO:  
NUESTRO PAISAJE.***

**I PREMIO DE COMENTARIO  
GEOGRÁFICO DE PAISAJE EN  
BACHILLERATO**

**EGILEA/-K    AUTOR/-AS/-ES: Uxue Ansotegi, Izaro Arana, Janire Muñoz, Ane Ramírez eta Nikolas Sáenz de Samaniego**

**IRAKASLEA    PROFESOR/A: Gaizka González Barragán**

**IKASTETXEA    CENTRO: Assa Ikastola**







## **GIDOIA**

- 1.- Zer elementuk osatzen dute paisaia? Baten bat nagusitzen da? Ikusten den paisaia zer da naturala edo antropikoa?**
  - *Paisaia osatzen duten osagaiak bereizten ditu*
- 2.- Zer erliebe mota da? EAEko zein unitatetan kokatuko zenuke? Modelatze formak ikusten dituzu?**
  - *Bereizitako erliebearen azterketa egokia egiten du: topografia, litologia, egitura, modelatze forma, kokapena*
- 3.- Zer landaredi mota bereizten da? Naturala edo antropikoa da? Zein dira haren ezaugarriak eta eragileak?**
  - *Egoki bereizten du landaredi mota edo lurzorua erabilerara mota. Eragile nagusiak alpatzen ditu: kokapenaren arabera baldintza klimatikoak*
- 4.- Ur-gorputzak ikusten dira? Zein?**
  - *Hainbat ur-gorputz bereizten ditu*
- 5.- Ikusten diren osagaiak eta ezaugarriak kontuan izanda, zer funtzio agertzen da edo dira paisaia horretan?**
  - *Paisaia horretan agertzen diren funtzioak egoki bereizten ditu*
- 6.- Zure ustez paisaia horretan natura-gizartea harremanaren arteko lurralde-gaitasun edo arazoren bat hautematen da?**
  - *Paisaia horretan adierazten den lurraldearekiko gaitasuna edo arazoa egoki ikusten eta azaltzen du.*

**1.** Paisaiaren osagaiei erreparatuz, osagai mota anitz dituela ikus dezakegu. Hasteko, nagusiki osagai antropikoak dituela aipatzekoa da. Hau landa eremuetan, nekazaritza-guneetan, baso landaketan eta sakabanatutako eraikuntza elementuetan antzematen da. Gainontzekoa, aldiz, naturala da, biotikoa mendi-mazeletan eta abiotikoa mendi labar eta hegalean.

**2.** Arabako Errioxan kokatzen da paisaia, bi muga naturalen artean: Toloño mendilerroa iparraldean eta Ebro ibaia hegoaldean. Toloño mendilerroa aro tertziarioan, Alpetar orogeniaren ondorioz sortu zen, beraz, material gogorrez osatutako mendikatea da, kareharria nagusi. Gainera, Toloño mendilerroak Arabako gainerako lurraldeetatik bereizten du Arabako Errioxa. Ebro ibaiaren sakonunean aurkitzen gara; hortaz, Ebro ibaiak milioika urteetan zehar metatutako sedimentuek osatzen dute. Sedimentu horietan buztinak, lohiak, hareak eta legarrak daude, eta uraren higaduraren eta sedimentazioaren ondorioz metatu egin dira. Erliebe horizontalak dira nagusi, aitzitik, modelatze aldapatsua ikus dezakegu mendi hegalean (ikus 1.h.d.).

**3.** Mendi-hegalean berezko landaredia naturala aurkitzen dugu. Mediterraneoko landaredia potentziala hazi da, abereak elikatzeko zereal partzelak landu gabe utzi direlako. Landaredia potentzialaren artean, arteak (*Quercus ilex*), karraskak (*Pinus halepensis*), ezpel sastrakak (*Buxus sempervirens*) eta zurzudiri-haltzadi mediterranearra (ikus 2.h.d.) bereizi ditzakegu, hala nola landaredia aromatikoak, adibidez, izpilikua (*Lavandula*), ezkaia (*Thymus vulgaris*) eta erromeroa (*Salvia rosmarinus*). Sute batek mendi magaleko zati bat erre zuenez gero, mendiaren hegaleko oinetan dagoen basoa landatu zen; mendiaren ezkerrean su-ebaki bat ikus daiteke, suteak hedatzea ekiditen duena. Laborantzarako erabiltzen diren eremuak dira nagusi, bereziki, mahatsondoak (*vitis*). Hauek lurzorua orientazioagatik (iparraldetik hego-ekialdera), osaeragatik (*arcilla carcaria*) eta Toloño mendilerroak eragiten duen babesagatik, mahastiak landatzeko eremu paregabea bihurtzen dute Arabako Errioxa (ikus 2.h.d.). Beste alde batetik, trantsizio klima batean aurkitzen garenez, baldintza klimatikoek mahastiek behar dituzten baliabideak eskaintzen dizkiete (ikus 3.h.d.).

**4.** Ur gorputzei dagokienez, laino orografikoa bereizten da, Toloño mendilerroa pantaila orografiko gisa funtzionatzen baitu; iragankorra da elementu hau.



**5.** Paisaia honen funtzioak antropikoak dira nagusi. Alde batetik funtzio landatarra daukagu, nekazaritzari dagokiona. Bestalde, bizitegi-jarduera; parez-pare ikusten dugun herrian, Samaniegon, altuera desberdineko eraikin tradizionalak ikus ditzakegu. Orobat, zerbitzu funtzioa aurkitzen dugu azpiegitura desberdinetan, garraio eta komunikaziorako errepideetan eta nekazaritza jarduerarako pabiloietan, besteak beste. Azkenik, funtzio naturala mendi-mazeletan ikusgai dugu.

**6.** Paisaia ikusgarri honetan dugun Kantabria Mendilerroa Europar Batasunak izendatutako kontserbazio bereziko eremua da, Red Natura 2000 babesguneari dagokio, "ZEPA-ZEC" izendapenetan, zonalde bereziak eta bertako hegazi biztanleria babesten dituen, alegia ([ikus 4.h.d.](#)). Halaber, mahastiak landa-eremu behartsu gisa katalogatutako eremuak dira; hori dela eta, landa-garapenerako planen eta programen esparruan administrazio publikoen eta Europar Batasunaren laguntzak jasotzen dituzte. Horri esker, ekintzailetza sustatzeko leku aproposak dira, zerbitzu mugatuak dituzten biztanle gutxiko eremuak izan arren. Izan ere, lehen sektoreak pairatzen duen arazo larrietako bat belaunaldi berriek landan lan egiteko duten interes falta da. Hain zuzen ere, hamabi urteetan, 1990etik 2002ra, nekazaritzako langileen kopurua 23.800 langiletik 13.200era jaitsi da, hots, %45eko jaitsiera izan du; areagotzen ari den fenomeno da hau ([ikus 5.h.d.](#)). Hortaz, landa eremu honetan dagoen lan-beharra betetzeko bestelako irtenbideak bilatzen dira, aipatutako laguntza ekonomikoaz gain, etorkinak kontratatzea, besteak beste, biztanleria mobilizazioan eta dentsitate iragankorrean eragina duena, baita paisaia naturalean ere.


Arabako Errioxa ardoaren ekoizpenean espezializatutako eremua da, hori dela eta, bertako aberastasun ekonomikoa mahastien uztatik dator. Mahastien ustiapenean faktore askok dute eragina, baina guztietan, garrantzitsuena, faktore klimatikoak dira. Azkeneko urteetan klima aldaketak eragin handia izan du; ekaitzen nagusitasunaren ondorioz, prezipitazio oso urriak eta irregularrak egon dira, euri-erregimena eraldatuz; prezipitazio bortitzagoek lurzorua emankortasunari kalte handia eragin diote, eta hauen urritasunak eta tenperatura altuek uda oso lehor eta beroak eragin dituzte. Horrek, ureztatze sistemen erabilera eremu lehorretan hedatzea eragin du, gehiegizko ustiapena, gehiegizko ekoizpena eta jasangarritasunaren galera eraginez ([ikus 6.h.d.](#)). Halaber, tenperaturaren igoerak izurrite berriak ekarri ditu, orain arte eskualde honetan eraginik izan ez dutenak, baina geroz eta ohikoagoak direnak, *luku sitsa* edo *kukurrutxa* bezalakoak ([ikus 6.h.d.](#)). Mahastien ustiapena baldintzatzen duten faktore hauek inguruetako biztanleriaren jardura ekonomikoan eragin kaltegarriak dituzte, ekoizpen gastu altuagoek irabaziak murrizten baitituzte ([ikus 6.h.d.](#)).

Galera ekonomikoen ondorioz, eta lurrari etekin handiena ateratzeko helburuarekin, nekazaritza intentsiboa praktikatzen da, landaketa prozesuan, oro har. Baina lur eremuen baliabide naturalak gehiegi ustiatzeak ingurumenaren degradazioa ekar dezake, eragin negatiboak dituenak, inguru ekologikoan zein ardoaren merkatuan. Horregatik, Arabako Errioxaren ardoa ekoizteko hainbat neurri eta muga daude; ardoaren ekoizpena arautzen duten neurri eta laborantza-praktika espezifikoak, ekoizpen jasangarria bideratzeko helburuarekin; jatorri-deiturak eta adierazpen geografiko babestuak. Arau horiek irizpide zorrotzak ezartzen dituzte baimendutako mahats-barietateetan, hazkuntza-metodoetan, ardogintzan eta zahartze-prozesuan ([ikus 7.h.d.](#)).




## Iturriak eta laguntza materialak

- (1) MUÑOZ DELGADO, M<sup>a</sup> P. (2017), *Geografía 2. Batxilergoa*, ANAYA-HARITZA. ISBN 978-84-698-3251-6
- (2) EAEko landare-diaren mapa, landaredia potentziala: [https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/?amp;lang=es&extent=-432351.0363,5222218.4846,-138832.8477,5383806.3624,102100&layers=AGRICULTURA\\_CAS\\_5969\\_43&baselayer=MapaGris](https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/?amp;lang=es&extent=-432351.0363,5222218.4846,-138832.8477,5383806.3624,102100&layers=AGRICULTURA_CAS_5969_43&baselayer=MapaGris)



- (3) Arabako Foru Aldundia, *Descripción de Rioja Alavesa*:  
[file:///C:/Users/Usuario/Downloads/Rioja%20Alavesa\\_descricion\\_cas%20\(5\).pdf](file:///C:/Users/Usuario/Downloads/Rioja%20Alavesa_descricion_cas%20(5).pdf)

- (4) EAEko ingurune babestuak: <https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea>



- (5) EP (2023ko azaroak 21), *Las personas dedicadas a la agricultura en Euskadi bajan un 45% en 12 años*, El País:  
[https://elpais.com/diario/2005/07/02/paisvasco/1120333203\\_850215.html](https://elpais.com/diario/2005/07/02/paisvasco/1120333203_850215.html)
- (6) Google Forms: Arabako Errioxako nekazariei egindako inkestak: <file:///C:/Users/Usuario/Downloads/Cuestionario%20agricola%20-%20Formularios%20de%20Google.pdf>
- (7) Honako lege honek arautzen du Arabako Errioxako jatorri-deitura: BOE 259 de 27/10/2004:  
<https://www.boe.es/boe/dias/2004/10/27/pdfs/A35560-35568.pdf>